

AIETETIK

(gure aitona, Xabier Olaskoagari)



Xabier eta Ander

Aitona maitea:

Ze arraroa egiten zaigun zu gure artean ez izatea... bizitzak jarraitzen du, baina batzuetan eten egiten gara eta zure faltaz konturatzen gara. Erreteriarra joatea eta zu ez egotea, edozein ospakizunetan mahaian gurekin ez esertzea... ez gara ohitzen. Baina hala eta guztiz ere, egia esan, beti zaude gurekin.

Aurten ez diguzu Oarson idatzitako artikuluari buruz hitz egingo Magdalena Jaietan. Gogoratzen gara zuretzat zein garrantzitsua zen lan hau prestatzea. Hasieran zenuen ilusioa segituan bilakatu zenuen zuretzako eginbehar batean. Horregatik, aurten, zure omenez hitz batzuk idatzi nahi genituen aldizkari honetan zure presentziak jarrai dezan.

Txikitatik, umiltasunez erakusten zenizkigun zuk egindako lanak, inongo garrantzi berezirik eman gabe. Gaztaroan, Europako beste herrietan Euskara zabalduz egindako bidaien "anekdotak" ez ziren faltatzen familiako bazkarietan. Ez zaigu sekula ahaztuko Pragan pasa

zenuen 50. urtemugaren kontakizun hura: Pragako plaza nagusi erdian 50 aldiz airera bota zintuztela kontatzen zenigun maiz. Beti pozez zeunden, abestiren bat kantatzeko prest. Urtero gure urtebetetzetan gogoekin espero genuen oparitzen zenigun bertsoa. Beti bazkalorduan abesten zenigun bertsoa, eta hori urtebetetzeko une politenetakoan bilakatzen zen guretzat. Eta ikusi ezin ginenean ere ez zen zure bertsoa faltatzen telefonoz kantatzen baitzenigun. Azken urtebetetzean zure bertsoa ez entzutea hutsune handi bat izan da guretzat.

Euskara, musika eta kultura ere zabaltzen zenuen gure artean eta, noski, Euskal Herriarekiko maitasuna ere suspertu zenuen gure barnean. "Zuek jarraitu behar duzue Euskal Herria egiten", "eutsi gogor gure ohiturei" edo "gure gauzak defendatu behar ditugu" izaten ziren zure mezuetakoz batzuk; baita ere "beti bizkor eta beti jator...". Zuk beti esaten zenigun gure lanetik edo kultura aldetik ere euskalduntze prozesua bultzatzeak zuen garrantzia. Bertsolaritza, kantua edo folkloreak gain, gure eguneroko bizitzan edo etorkizuneko ekintzetan "gure euskara eta gure kultura" suspertzeko.

Gure aukera da eta euskaraz bititzea.



Helduago izan garenean bakarrik konturatu gara nolakoa izan den lan kopuru hau eta zein zabalkuntza izan duen euskal kultura mailan.

Kultura eta euskaraz gain zure maitasuna beti erakutsi zenigun eta gure pausoak gogoz jarraitzen zenituen. Asko interesatzen zinen gudan eta zure laguntza guztia ematen zenigun gure bizitzan zehar egiten genituen ekintza guztietan: musika, ikasketak eta abar. Teknologia berriei buruz ikasteko gogo handiak zenituen beti... esaterako ordenagailuan egin daiteken guztia magiatzat hartzen zenuenean. Beti ikasteko prest, guri galdezka, eta gure ordenagailuan zertxobait *salseatzen*.

Erreterria ere asko maitatzen zenuen, eta horrela adierazten zenigun guri beti. Herriari ahal zenuen guztia eman zenion. Magdalenak gogoko zenituen eta, honen ondorioz, guk ere sentimendu berezi bat dugu haiekiko. Jai garrantzitsu bat zen zuretzat, gogoko bizitzen zenuena eta azken une arte gozatu ahal izan zenuena.

Amona eta zure arteko maitasuna ere age-ria zen. Ederra da bi pertsona horrenbeste denbora pasa ondoren hain maiteminduak jarraitzen dutela ikustea. Familiari beti eman zenion guztia. Izeba Pilar eta amona ahal izan zenuen arte zaindu zenituen. Erreterriako zein Oñatiko ilobekin zenuen harreman berezia azpimarratzekoa da ere. Jende guztiarekin zenuen harreman ona. Denek ezagutzen zintuzten eta denontzat zenuen denbora.

Ez pentsa hemendik gauzak gehiegi aldatu direnik. Euskal Herriko egoerak antzerako jarraitzen du. Zuk hainbeste espero zenuen bakea bidean dagoela dirudi baina oraindik egoera ez da zeharo argitzen. Errealarekin sufritzen egongo zinateke une hauetan... azkenaldi honetan ohitu gaituzten bezala jaisteko zorian daude aurten ere. Touring ere asko jarraitzen zenuen eta hor dabil, bere martxan... Zuk telebistan ikusten zenituen partidu guztiak: futbola, pilota, txirrindularitza... entretenimendu handia zen zuretzat. Beti esaten zenuen telebista zela "asmakuntza hoberena".

Ziur gaude, gu bezain eskertua egongo zinela Erreterriako jendea, Udaletxea eta Ereintza, Andra Mari Abesbatza, Erreterria Musikal, Xenpelar Bertso Eskola eta beste hainbat kultur elkarterekin egin zizuten omenaldiagatik. Seguruenik orain ere berdina esango zenuke "hau gehiegi da", "beste askok nik baina askoz ere gehiago merezi dute"... Horretaz gain, zure plaza ikusteko aukera izan zenuen. Eta ez hori bakarrik, hasiera batean plaza leku itxi eta bakarti bat izango zela uste bazenun ere, zuk zeuk egunero ikusi ahal izan zenuen, herriko leku bizienetako batean bilakatu zela; eta horrek poza handia eman zigun denoi.

Bihotz-bihotzez esaten dizugu aitona oraindik faltan botatzen zaitugula. Beti izango zaitugu gurekin.

**Maite zaitugu.
Xabier eta Ander**